

# Milaka lagun batu zituen Bilbon Senideak-ek deitu manifestazioak

Ardanzari «oinarrizko eskubideak zanpatzea» onartzea leporatu zioten

**M**ilaka pertsonen zeharkatu zituzten atzo Bilboko kaleak, 'Etxean nahi ditugu' lemarekin Senideak elkarteak antolatutako manifestazioan. Ekitaldiaren amaieran elkarteko ordezkari batek «gertatzen denaz bost ajola izatea» egotzi zion Ardanza EAeko lehendakariari, eta presoek eskubideen alde borrokatzeko asmoa berretsi zuen.

Z. ZAMAKOLA / BILBO

Antolatzaileek agindu bezala, manifestazio osoa isilik igaro zen, eta 'Etxean nahi ditugu' eta 'Etxera' lemez kanpo, ez zen beste edukirik zeukan pankartarik egon.

Manifestaldia bost t'erdia pasatuxe hasi zen Bilboko Bihotz Sakratuaren plazan eta 7.30ak ondo pasatuxe heldu zen Bizkaiko hiriburuko udaletxera. Ordu erdi beranduago, azkenak oraindik iristeke zeuden.

Manifestazioaren buruan 'Etxean nahi ditugu' lema jasotzen zuen pankarta handia zegoen, Ipar eta Hego Euskal Herriko herrialde guztietako preso, deportatu eta errefuxiatu politikoen senitartekoen eskuetan.

Pankarta horren ostean, Senideak elkarteak partaideak eta gehienbat senitartekoak biltzen zituen multzoa zegoen. Eskuetan, euren ikur bihurtu den kriseilu piztuak zeramatzaten.

Ondoren, 'Etxera' zioen beste pankarta bat zegoen, milaka eta milaka lagun biltzen zituen manifestazioaren multzo nagusiaren lekua emanez.

Ibilbide osoan, lekuan leku ipinitako megafoniaz musika entzun ahal zen etengabean eta manifestazioak iraun zuen bitartean.

Udaletxera heldu eta Senideak-eko ordezkariak berba egin ondoren, abesbatza batek zenbait abesti kantatu zituen.

**HITZ GOGORRAK ARDANZARENTZAT** Manifestazioa amaitzeko egindako hitzaldian, manifestariak beraie euskal preso politikoen eta gizarte osoaren izenean eskerrak eman ondoren, Senideak elkarteak ordezkariak ziurtatu zuen «borrokan» segituko dutela, «behin betikoz preso politikoei eta gainontzeko espetxeratuiei pertsonak diren neurrian dagozkien eskubideak errespetatu diezazkieten».

Senideak-eko ordezkariak hitz gogorak izan zituen Jose Antonio Ardanza EAeko lehendakariarentzat, beraren esanetan «konfliktuak saihestu eta gertatzen denak bost ajola» zaiolako. Gainera, presoek eta senideei buruz aritzean, «beti txarre-rako» dela egotzi zioten.

Ardanzak «bake iraunkorra» ez duela nahi eritzi zion presoek seni-



Senideak elkarteak beren familiakoen izenean eskertu zuen izandako «partaidetza handia».

SIMAL

**✓** Goardia Zibilak manifestaziorantz zihoazen autobusak geldiarazi zituen, sekulako karabana eraginez Bilbo-Behobia autopistan.

tartekoen elkarteko ordezkariak, eta aitzitik, «presondegiatan bidegabekeria eta estatusuna gordetzearen alde» dagoela gaineratu zuen. «Horrexegatik —baietsi zuen— hiritar askok ez zaitugu ordezkari ikusten, zu ez zara gure lehendakaria, eta baldin bazara, frogatu izeaiguzu».

«Gu hona aldarrikatzen etortzeko behartu gaituzten arrazoiekin ados gaudela esaten digu; egoera guzti honekin ados dagoela esaten digu;

sakabanaketa neurri politikoa dela dio, eta, errentabilitate politikoa alde edozer gauza egin behar dela dio, pertsonaren oinarrizko eskubideak zanpatzeraino, indarrean dagoen lege penitentiarioari jaramonik ez egiteraino, behar deneraino», egotzi zion hizlariak Jose Antonio Ardanzari.

Gaur egungo «gorrotoak» bakea ez dakarrela eritzi, «holako egoera jasangaitza, beldurrezko, ziurgabe-

tasunezko, babesik gabeko eta injustiziaz jositakoaren aurrean nekatuta, nazkatuta» daudela adierazi zuen.

**HIRU ATXILOTU KONTROLEAN** Bestalde, zenbait iturrien arabera,

Goardia Zibilak bi lagun atxilotu zituen Zornotzan jarri zuen kontrolean. Kontrola goizean istripua egon zen lekutik 200 metro eskasera zegoen ipinita, kiskalita-ko autoak zeuden beste aldean, eta bederatzita Nissan eta tanketa batek osatzen zuten.

Goardia Zibilak manifestaziorantz zihoazen autobusak geldiarazi zituen, eta horietako batean zeuden Abdon Macias Macias eta Javier Iguaran Arandia atxilotu zituen.

## Presoen helburuekin bat datozela esan dute Arrutia eta Etxabek

DONOSTIA

Isidro Etxabe eta Juan Antonio Urrutia presoek eskuidazki bat eman zioten Iñaki Esnaola beren abokatuari osteguneko bisitan eta Egin egunkariak argitaratu zuen atzo. Idatzi horretan joan den astelehenean zenbait komunikabideetara filtratutako grabazioak egiazkoak direla esaten da, baina beraiek eta senideek ez zekitelarik horiek grabatu egin zituztenik, «guztiz pribatuak» zirelako.

Gose greban daudela beste euskal preso politikoei guztiekin batera diote Etxabe eta Urrutiak, eta «dituzten helburuekin erabat ados». Bestalde, datozen egunotan euskal presoek idatzi bat kaleratuko dutela eman dute jakitera. Esnaola abokatuari eman zioten euskarazko idatzi horretan atzo 'Senideak' elkarteak antolatuta Bilbon egin zen manifestazioan parte hartzeko deialdia ere egiten zen.

Bi ordu baino gehiago izan zen Iñaki Esnaola osteguneko Etxabe eta Urrutia presoekin bilduta. Elkarrizketa horiek argitaratu zirenetik bi preso hauek bisitatu dituen lehenengo pertsona izan da.

Bestalde, Antoni Asuncion, Gartzelako zuzendari nagusiak orain aste batzuk Langraitzeko gartzelan zortzi presoekin egon zela azaldu zuen, horien artean Etxabe eta Urrutia. Hirugarren gradu onartzearen truke beren aldeko neurriak egongo zirela esan zieten, beti ere Esnaolari esandakoaren arabera, baina ukatu egin zuten. Gradu aldaketa eskaintzen bazitzaie onartuko zutela esan zuten, baina horretarako inolako eskakizunik ez zutela egingo.

**IBILALDIAK HEGOALDEKO GARTZELETARA**

'Presoak Euskal dira' lema lau ibilaldi egingo dira gaur Hego Euskal Herriko lau gartzelara. Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako ibilaldi


Presoen aldeko beste kanpaina batek lagunduko du gose greba

A.S./BAIONA

Gaur gauerdian, Espainia, Frantzia eta Euskal Herriko espetxeetan giltzaperatuak dauden 550 euskal preso politikoei astebeteko gose grebari hasiera emango diote. Lehen aldikotz denek batera egingo den ekintza honen sustatzeko, ekitaldi andana baten aurkezpena egiten zuten Gureak eta Ahaideak, senitarteen elkarteak, errefuxiatuen eta iparraldeko militanteen sustengu taldeek eta AJJRek atzo Baionan egindako prentsaurreko batean.

Horrela, gaur berean, arratsko zortzietan, elgarretaratze baten deia egingo da Baiona txikiko Pontrique plazara. Bertan, presoek egoeraz azalpenak emanen dituen ekitaldi politikoa baten ondoren, enkartelada bat egingo da hiriko karriken gaindi. Datorren asteartean, giza eskubideen nazioarteko eguna izango dela eta, Rene Cassinen etxe inguruan ibilaldi bat egingo da, baiones hau giza eskubideen agiri unibertsalaren asmatzailea izan bait zen. Osteguneko, aldiz, Baionako unibertsitate eta ikasteetxetan presoek buruzko argibideak zabalduak izango dira, ikasle abertzaleen eskutik. Presoen gose grebaren azken egunean, abenduaren 14ean, Baionan egingo den manifestaldi batekin bururatuko da sentibilizazio kanpaina hau.

Atzoko prentsaurrekoaren egileek oroitarazi zuten, astebeteko gose greba bateratu honek, hamaika aste hauetan espainiar Estatuko gartzelatan espetxeratuak diren militante politikoei daramaten aldizkako gose grebari jarraipena egingo dio. Senideen ordezkariak eta presoek sustengutik elkarrekin aditzera eman zuten, «presoei, gurekin borrokatzen dira gaur, euskal populua bere gaintasunean onartua izateko gisako politika ibilbide bat zutik ezarria izan dadin. Ibilbide honen barne, amnistia osoa berez doa».



Iñaki Esnaola, Langraitzeko gartzelako sarreraren herenengun.

OLAIDE

hauek euskal preso politikoen alde egiten ari den kanpainaren barruan sartzen dira.

Gaur goizean abiatuko dira ibilaldi hauek Hegoaldeko hiriburuetatik Martuteneko gartzelara, Langraitzera eta Basaurira joateko. Bilbon Arenaletik abiatuko da goizeko hamaiketara, Donostian ordu berean abiatuko da Bulebarretik, Gasteizen hamar t'erdietan autobus geltokitik.

Iruñeko gartzelarako ibilaldia datorren larunbatean egingo da.

Bestalde, Gasteiz, Donostia eta Bilbon gose greba hasi duten hogeitamaika pertsonen manifestazio hauetan parte hartzeko deia egin dute, eta presoek elkartasuna agertzeko beste edozein ekintzetan. Itxirik segitzen dute oraindik hiru hiriburu hauetan gose greban hasi ziren pertsonak.